

Euskal AEko biztanleria landuna % 0,2 handitu da eta langabezia-tasa % 11,9an da 2012ko bigarren hiruhilekoan

2.000 landun gehiago izan da

Eustaten datuen arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko lan-merkatuan 914.300 landun izan dira; hau da, aurreko hiruhilekoaren aldean 2.000 landun gehiago izan da –bi hamarren gehiago-. Bestalde, Euskal AEko langabezia tasa % 11,9 izan da, 2012ko lehenengo hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,2 puntu txikiagoa.

Landunen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa % 55,4an da aurtengo bigarren hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoan bezala geratu da, beraz.

Okupazioaren gehikuntzak emakumeengan izan du eragina: aurreko hiruhilekoan baino 6.400 emakume gehiago daude lanean; landun gizonezkoak, aldiz, 4.400 gutxiago dira. Okupazioa lurralde bakar batean igo da: Bizkaian; 6.400 landun gehiago dira lurralde horretan. Araban, berriz, 1.500 landun gutxiago dira, eta Gipuzkoan, 2.900 gutxiago.

Zerbitzuen sektorean eta nekazaritzan lanpostuak berreskuratu dira, baina industria eta eraikuntza sektoreetan lanpostuak galdu dira

Zerbitzuen sektorean 7.200 enplegu gehiago izan da, eta nekazaritzan 1.100. Hala ere, eraikuntzan 4.100 enplegu gutxiago izan dira eta industrian 2.300 gutxiago.


Enplegu tasa (hau da, 16 eta 64 urte arteko pertsona guztiak kontuan hartuta landunak direnen ehuneko) % 63,2 izan da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,3 puntu altuagoa alegia. Gizonezkoen kasuan tasa hori % 67 izan da eta emakumezkoen kasuan % 59,3.

Lurralde historikoetan, enplegu tasarik altuena Gipuzkoan eman da (% 65,9), aurreko hiruhilekoaren aldean 0,4 puntu baxuagoa; gero bigarren tasarik altuena Arabak izan du (% 64,1), ehuneko 0,4 puntu baxuagoa; eta azkenik Bizkaiak tasarik txikiena izan du (% 61,3), azken hiruhilekoan bederatzi hamarren handiagoa.

Lan-kontratu mugagabeko 5.500 soldatapeko gutxiago izan dira, horrela guztira 578.800 izan dira; aldi baterako kontratua duten soldatapekoak edo kontraturik ez dutenak 1.000 gehiago izan dira, beraz, guztira 169.600 izan dira.

Zenbatespenen arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan gutxi gorabehera Euskal AEko 847.200 etxetan (aurreko hiruhilekoan baino 900 gehiago) bizi diren pertsonen ia herenak ez ziren aktiboak. 10etik ia 6 etxetan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 3.000 familia gutxiago; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 41.100 dira (guztirakoaren % 4,8), aurreko hiruhilekoan baino 1.600 familia gehiago.

Biztanleria okupatuaren joera, 1985etik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Langabezia-tasa % 12,1etik % 11,9ra jaitsi zen

Urteko bigarren hiruhileko honetan, Euskal AEko langabetu kopurua 123.000 izan dela zenbatetsi da, aurreko hiruhilekoan baino 2.600 gutxiago. Lan bila ari diren, lana bilatzeko kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta lanerako prest dauden pertsonak jotzen dira langabetutzat. Bigarren hiruhilekoan, gizonezkoen artean 67.700 langabetu egon dira, hau da, 3.500 gutxiago; eta emakumezkoen artean 800 langabetu gehiago egon da (guztira 55.300).

2012ko bigarren hiruhilekoko datuen arabera, aldi horretako langabezia tasa % 11,9 izan da, aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu baxuagoa. Gizonen langabezia tasa % 12,1era jaitsi da (ehuneko 0,5 puntu gutxiago) eta emakumeena ez da aldatu (% 11,5ean mantendu da). Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, % 30,7; horrenbestez, 16-24 urte bitarteko 13.900 gazte aktibo daude langabezian.

Lurralde historikoka, Bizkaian langabetu kopuruak behera egin du (-4.500 pertsona) aurreko hiruhilekoaren aldean, eta langabezia tasa % 14,3 izan da. Gipuzkoan 28.100 langabetu izan dira; beraz, lurralde honetan 3.100 pertsona gutxiago egon da langabezian, tasa hori % 8,6an utziz. Araban, berriz, 5.000 langabetu gehiago daude, eta langabezia tasa % 9,9 da.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2012ko maiatzean 27 kideko Europar Batasunean langabezia tasa % 10,3 izan da eta Espainian % 24,6.

Azken urtean 8.100 langabetu gehiago izan da Euskal AEn

Euskal AEko landun kopurua, 2011ko bigarren hiruhilekoaren aldean, 28.900 pertsona gutxiago izan da, -1,7 puntu. Beharpen hori gizonezkoen artean izan da nagusi, 26.500 enplegu gutxiago; emakume landunen artean 2.400 gutxiago izan dira.

Langabezia-tasa ehuneko puntu 1 igo da azken urtean (% 10,9tik % 11,9ra). 2011ko bigarren hiruhilekoan baino 8.100 pertsona gehiago ziren langabe Euskal AEn. Araban, langabezia tasa

ehuneko 2,5 puntu igo da, Bizkaian puntu 1, eta Gipuzkoan langabezia-tasa 0,2 puntu igo da, 2011ko hiruhileko beraren aldean.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2012ko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	e.p.*	Milakoak	e.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.872,3		-0,4		+1,4	
AKTIBOAK / I HARDUERA TASA	1037,3	55,4	-0,6	+0,0	-20,8	-1,2
Gizonak	557,5	61,3	-7,8	-0,9	-19,2	-2,1
Emakumeak	479,8	49,8	+7,2	+0,8	-1,5	-0,2
BIZTANLERIA LANDUNA / ENPLEGU-TASA	914,3	63,2	+2,0	+0,3	-28,9	-1,7
Gizonak	489,8	67,0	-4,4	-0,5	-26,5	-3,2
Emakumeak	424,5	59,3	+6,4	+1,1	-2,4	-0,2
Araba/Álava	140,5	64,1	-1,5	-0,4	-4,9	-2,0
Bizkaia	475,2	61,3	+6,4	+0,9	-11,6	-1,3
Gipuzkoa	298,6	65,9	-2,9	-0,4	-12,4	-2,2
Nekazaritza	8,2		+1,1		+0,7	
Industria	216,6		-2,3		-9,6	
Eraikuntza	56,7		-4,1		-12,3	
Zerbitzuak	632,8		+7,2		-7,6	
Soldatakoak	748,4		-4,5		-35,4	
- Kontratu mugagabea dutenak	578,8		-5,5		-23,8	
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	169,6		+1,0		-11,5	
Ez soldatakoak	165,8		+6,4		+6,4	
LANGABEAK / LANGABEZI-TASAK	123,0	11,9	-2,6	-0,2	+8,1	+1,0
Gizonak	67,7	12,1	-3,5	-0,5	+7,3	+1,6
Emakumeak	55,3	11,5	+0,8	+0,0	+0,8	+0,2
16 - 24	13,9	30,8	+0,7	+4,2	+1,3	+7,0
25 - 44	74,5	13,0	-1,8	-0,4	+4,2	+1,0
45 eta gehiago	34,6	8,2	-1,5	-0,4	+2,6	+0,5
Araba/Álava	15,4	9,9	+5,0	+3,1	+3,7	+2,5
Bizkaia	79,5	14,3	-4,5	-0,9	+4,9	+1,0
Gipuzkoa	28,1	8,6	-3,1	-0,8	-0,5	+0,2
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	835,0	44,6	+0,2	+0,0	+22,2	+1,2
ETXEBIZITZAK	857,1		+0,8		+9,9	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	577,7	67,4	+2,7		+3,6	
- Guztiak okupatuak	477,9	55,8	+3,0		-2,8	
- Guztiak langabeak	41,1	4,8	+1,6		+5,3	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	279,4	32,6	-2,0		+6,3	

*e.p. = Aldea, ehunekotan

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.: +34-945-01 75 31 Faxa: +34-945-01 75 01

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatze inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatze inkestari buruzko datu-bankua